



# 7. POESIA ERROMANTIKOA

Erromantizismoak, prosan eta antzerkian bezala (ikus 6. gaia), poesian ere emaitza ugari eta baliotsuak utzi zituen. Gogora ekar ditzagun ezaugarri batzuk: subjektibotasuna, gizabanakoaren garrantzia, bat-batekotasuna, irudimena, emozioaren eta sentimenduaren indarra, arrazoimenaren aurrean intuizioaren garrantzia, idealaren gorespina (baita frakasoarena ere), exotismoa, edertasuna artearen helburu bezala, formazko askatasuna, iturri zahar eta folklorikoetara jotzea...

## 1. ALEMANIA

- **J.W. Goethe:** dramagile izateaz gain (*Fausto, Werther...*), poesian ere jardun zuen. Aspaldiko ametsa betez, Italiara joan zen 1786an. Erroman antzinatea aztertu zuen eta Alemaniako erromantizismoa aldatu zuten ideia neoklasikoak landu zituen bertan. Goetheren eragina mundu osora hedatu da, eta gaur mundu osoko literaturan izenik handien artean dago.
- **Heinrich Heine:** azken erromantikoa deitu izan zaio; izan ere, gaztaroan sentsibilitate erromantikoa barne-barnetik bizi izan zuen. Judua izanik eta Frantziako Iraultzaren miresle, Alemania utzi eta Paris bizileku bihurtu zuenean, bere erkideen gaitzespena jaso zuen. Alemaniak izan duen poeta liriko handienetakoa da bera.

### 1. PROMETHEUS\* J.W. Goethe

Estal ezazu zeure zerua, Zeus,  
hodeizko errezelez  
eta, sasiak trenkatzen dituen mutikoak bezala,  
ekin ezazu harizti eta mendi gainetan.  
Baina ez egidazu uki ene lurra,  
ez ene etxea, ez baituzu zuk eraiki,  
ez ene sutondoa, hemengo epeltasuna  
enbidiatzen baituzu.  
Ez dut ezagutzen eguzkiaren azpian  
zuek jainkook baino izaki pobreagorik.  
Ozta-ozta duzue zeuen maiestatea  
sakrifizioz eta otoitz hatsez elikatzen  
eta ez zenukete zutik iraunen  
jende sinesberarik eta eskalerik ez balego,  
esperantzaz beteriko idiotarik ez balitz.  
Ni haurra izan eta  
dena ignoratzen nuenean  
ene begi galduak  
eguzkirantz itzultzen nituen,  
han goian ene kexuak  
entzunen zituen belarria bailitzan,  
enea lako bihotza  
sufritzailez gupidatuko zena.  
Nork sostengatu ninduen  
Titanen larderiatik?  
Nork libratu ninduen  
esklabutzatik?  
Ez duk dena heurez gainditu

ene bihotz sakratu gartsua?  
Eta, gazte eta engainatua,  
han goian zetzanari eskerronez  
erretzen hintzen.  
Nik zu ondratu? Zergatik?  
Oinazetan daudenen mina  
arintzen duzu zuk?  
Estutasunera eroritakoen malkoak  
xukatzen dituzu zuk?  
Ez naute ene eta zeure  
ugazabak diren  
denbora ahalguztidunak  
eta patu eternoak  
gizaseme tankeran forjatu?  
Ekibokatu egin zara agian.  
Bizitza gorrotatuko nuela  
eta bakardadean errefuxiatuko nintzela  
uste zenuen  
egunsentiak ez zituelako beti  
ene ametsak konpliarazten?  
Hemen bertan eserita, gizakumeak  
moldatzen ditut  
ene irudira,  
ene gisako leinua osatzeko,  
sufrituko dute, negar egingo dute,  
atsegin eta bozkarioarako biziko dira  
eta zuri, ene antzera,  
ez dizute gehiago otoitzik egingo.

\*Prometheus (Prometeo): Greziar mitologiako pertsonaia, Titanen arrazakoa. Sua lapurtu zuen Olinpotik, gizonei emateko asmoz. Zeusek, haserre, harri baten inguruan kateatu zuen, arrano batek gibela etengabe jaten ziola. Azkenik, Herkulesek askatu zuen.



## 2. FILOSOFIA Heinrich Heine

Arratseko itsaso mortuari begira  
 gazte nahigabetu batek, burua mila zalantzaz nahasirik,  
 olatuei ezpain dorpez galdetu die:  
 «Oi, adierazi egidazue bizitzaren enigma,  
 hainbeste bururen gogoeta gaia izan den  
 enigma larri zaharra,  
 hieroglifiko txanodun buruek,  
 kapela belzdun eta turbantedun buruek,  
 ileordedun buruek eta beste mila  
 giza buru pobre eta izerditsuk egin baitute  
 galdera hau: Zer da gizakumea?  
 Nondik heldu da? Eta nora doa?  
 Nor bizi da han, izar doratuetan?»

Olatuek beren murmur hots eternala  
 jarraitzen dute,  
 haizea ufaka ari da, hodeiak iheska doaz,  
 izar axolakabe eta hotzak izarniatzen,  
 eta idiota bat dago  
 erantzunaren aiduru.



Lord Byron

## 2. INGALATERRA

- **W. Wordsworth** (1770-1859) eta **S. T. Coleridge** (1772-1834) poetak batera agertu ohi dira literaturaren historian; izan ere, *Balada lirikoak* liburuaren egileak biak dira, eta obra horixe izan zen Erromantizismo ingelesaren abiapuntua. Bi poetek jasan zuten idealismo alemanaren eragina. Wordsworth-entzat natura da poesiaren nagusia. Bestalde, Coleridge-ren obrarik ospetsuena, *Marinel zaharren balada* poema luzea erromantizismo ingelesaren gailurra da.

- **Lord Byron** (1788-1824) eta **P.B. Shelley** (1792-1822) "poeta madarikatuak" deitu izan dira, ideia eta jarrera iskanbilatsuak zituztelako.

- **John Keats**-ek (1795-1821) ez zuen izan aurreko bien madarikatu famarik. Umezurtzia eta bakardadea jasan ondoren tuberkulosiak jota hil zen hogeita sei urte besterik ez zituela. Erromantizismo ingeleseko poetarik esentzialena, poesia hutsa egiten zuen, soila, transparentea. Harrigarria da hain urte gutxirekin Greziako mundu klasikoaz lortu zuen intuizioa zein sakona eta benetakoa zen. Keats-en poema estimatuenak sonetoak dira, bere *Odak*

(Anfora grekoari, Urretxindor bati, Udazkenari...)





### 3. GERNIKAKO HARITZA! William Wordsworth

Oak of Guernica! Tree of holier power  
Than that which in Dodona did enshrine  
(So faith too fondly deem'd) a voice divine  
Heard from the depths of its aerial bower  
How cants thou flourish at this blighting hour?  
What hope, what joy can sunshine bring to thee,  
Or the soft breezes from the Atlantic sea,  
The dews of morn, or April's tender shower?  
Stroke merciful and welcome would that be  
Which should extend thy branches on the ground,  
If never more within their shandy round,  
Those lofty-minded lawgivers shall meet,  
Peasant and lord, in their appointed seat,  
Guardians of Biscay's ancient liberty.

Gernikako haritza! Zuhaitz indar santukoa,  
Dodonan bere adasken sakonetik jainko ahotsa  
entzunaraziz (fede sineskorren ustez)  
gordetzen zuen haritz profetiko hura baino gehiagokoa

Zelan loratzen zara suntsidura aro honetan?  
Zer esperantza, zer laztan ekartzen dizu eguzkiak,  
Atlantiko itsasotik iristen haize samurrak?  
goizeko garoak, apirileko euri gozoak?

Kolpe gupidatsu eta zorionsua litzateke  
zure abarrak lurrean barreatuko lituzkeena,  
zure gerizpe zirkuluan ez badira gehiago

biltzarrean elkartuko beren eserlekuetan  
laborari eta jaunak, legegile dohatsu horiek,  
Bizkaiko askatasun zaharraren zaindariak.



**4. ODA GREZIAR ANFORA BATI John Keats**

Zu, gelditasunaren emaztegai oraindik ukigabe hori,  
isiltasunaren eta ordu motelen alabatzako hori,  
gure poeman baino gozoago,  
ipuin loratu bat kontaktzen duzun oihaneko rapsoda;  
zer elezahar, berdetasunez inguratua, ikaratzten da  
zure forman? Jainkoena ote da, ala gizakiena, ala biena,  
nongoa, Tenpekoa edo Arkadiako ibarretakoa? Nor dira  
gizon edo jainko horiek? Zein da eseste eroari  
aurre egiten dion dontzeila hori? Zer borroka da hori, ihesean?  
Zer dira flauta eta danbor horiek? Estasi ero hori, zer da?

Gozoak dira musika entzunak; gozoagoak  
dira ordea entzungabeak. Ez zaitezte isildu,  
oi xaramela bigunok!, baina ez zentzuari kantatu:  
izpirituan samurragoak baitira notarik gabeko doinuak.  
Zuhaitzen azpiko gazte horrek, ezin eten duzu  
zeure kantua, eta ezin dira adar horiek biluztu;  
maitale ausart horrek, ezingo duzu laztanik egin,  
hain hurbil egonik ere; ez penarik izan ordea: zure maitea  
ez da zimelduko; ez duzu zoriona eskuratuko,  
baina beti maitatuko duzu, eta maitea ederra izango da beti.

Ai! Zoriontsuak, zoriontsuak zuek adarrak, ezin baitituzue  
hostoak sakabanatu, ezin diozue apirilari agurrik esan!  
Eta musikari zoriontsua, inoiz nekatzen ez zarena  
kantu berriak ontzeaz. Alabaina,  
zoriontsuagoa da, zoriontsuagoa maitasun dontsu hori,  
beroa beti eta oraindik gozatu gabea,  
arnasestuan beti, eta betiko gazte:  
denak bizi dira giza grinatik urrun,  
bihotza hain aseturik eta hain triste, eta suzko bekokia  
eta mihi errea uzten dituen grinatik urrun.

Nor dira sakrifiziora doazen horiek?  
Zein berdetasun aldaretara, oi apaiz bitxi hori!  
daramazu zekorra, zerurantz marruka,  
saihets zetazkoak girlandez estalirik?  
Zein herrixka, hondartza nahiz ibaikoia,  
edo mendi goikoa, bere zitadela baketsuarekin,  
jendegabetu zen goiz jainkotiar horretan?  
Zure kaleak, oi hiri, betiko isilduko dira,  
eta arima bat ere ezingo da itzuli  
zergatik zauden hutsik esatera.

Forma atikoa, jarrera ederra!  
Marmolezko gizon eta dontzeilen leinuaz,  
oihan adarrez eta belar zapalduz horniturik,  
Zure ahaleginak, oi forma isila!, betierekotasunak nola,  
gure pentsamenduak ditu menderatzen: oi zu, pastoral hotza!  
Zahartzaroak higatuko dituenean gaur guri direnak,  
beti izango zara zu, beste arduren artean,  
gizonaren adiskide, esanez: "Edertasuna  
egia da; egia, edertasuna". Eta hori da  
lurrean dakizuen oro, eta besterik ez da behar.








### 3. FRANTZIA

Frantziako Erromantizismoa Alemaniakoa eta Ingalaterrakoa baino geroagokoa da, eta haiek urratutako arrastotik ibiliko da. Frantziako poesia erromantikoan bi izen nabarmentzen dira: **Alphonse Lamartine** (1790-1869) eta **Victor Hugo** (1802-1885).

- **Lamartine**-ren poesia zintzoa eta delikatua gertatu zen irakurleen belarrietarako, maitasunari buruz edo paisaiatz hitz egiteko haren tonu sentibera eta malenkoniatsuak berritasun kutsua ekarri zion ordu arteko poesia frantsesari.
- **Victor Hugo**-k genero literario guztiak landu zituen. Hogei urterekin argitaratu zuen bere lehen poesia liburua: *Odak eta baladak*; geroago etorriko ziren *Ekialdekoak* eta *Udazkeneko hotsoak*, besteak beste.



Alphonse Lamartine



Victor Hugo

### 5. GURASOEN ETXEKO LEIHOA Alphonse de Lamartine

Mahatsondo batek besoak zabaldu zituan  
guk lehenengoz argia ikusi genuen etxera;  
zerutik txoriak leihora etortzen ziran  
mahats aletxo bigunak noizbehinka jatera.

Gure amak eskuak maitekiro luzatuz,  
adarrak hurreratzen zizkigun bai; ahoan  
ale gozoak sartu ta, hondakinak osoan,  
txoriei ixil-ixilik berriro bihurtuz.

Hil zen bai, ama! Txoriak aldegin ta, beraz  
hil-zori dago mahatsondoa lur makalean  
ta, negar-oinazez azpiratua, ikaraz  
zinkurinka nabil neure bakardadean.

Hautzaroko oroitza ederrez naukazun  
ene leiho-ondoko mahatsondo zahar hori  
zu hil baino lehen, zure itzal, edertasun  
ene hilobiak eskatuko dizu ziurki.





## 6. UMEA Victor Hugo

Ume agertzen danean  
etxekoen artera,  
txaloka hasten gaiakoz  
agertuaz batera,  
poz haundi dakarskulako  
guztioi bihotzera,  
alai ta "malezi" gabe,  
agertzen danean bera.

Gogoia daukagunean  
bete-beterik lainoz,  
bekoki-begiak ilun,  
nahigabe ta gorrotoz,  
edozeineri umeak,  
begirakune gozoz,  
gogo, bekoki, begiak  
argituten dautsoz.

Bedar ganean jarrita  
Bagilako beroan  
edo Zemendiko hotzakaz  
etxe barru-barruan,  
guztiok goakoz eneka,  
euki nahirik altzoan,  
nondik edo handik umea  
agertuten danean.

Bere ama dar-dar dago  
(baina irribarreka)  
ikusiaz dabilela  
semea txaka-txaka.  
Bere aita samurkiro  
semetxuari deika;  
danok umeari adi,  
danok pozik barreka.

Su ondoan alkarturik,  
danok biribilean,  
egoten gara berbetan  
famili batzarrean.  
Hantxe aitatuten doguz  
Jaungoiko ta gizon,  
aberri ta olerkari,  
baina umea badator...

agur, zeru ta Jaungoiko,  
agur, gizon ta aberri,  
agur, berbeta gozoa,  
agur, olerkari!  
Umea agertu da-ta,  
itxirik berbeteari,  
danok goaz irribarreka  
beragana arin-arin.

Izan be, ume maite hori,  
beti argitsu dagoz,  
gozotasunez beterik,  
zure begi ederrok.  
Eta zure eskutxu samur  
eta bedeinkatuok  
ez dozuz, orainarteino,  
gaiztakeriz lohitu inoz.

O, urrezko buru santu,  
aingeru zoragarri,  
loratxu eder ta lirain  
guztiz maitagarri!  
Ez dozu ezagutzen zuk  
oindino txarbiderik,  
ez dozu hoben-lupetzan  
inoz zikindu oinik.

Zure hizkuntza polita  
ondo ulertuten dogu;  
irribarre gozoagaz  
beti zagoz ustetsu;  
edozer gauzak, oraintxe,  
liluratuten zaitu;  
negarrari emonez, gero,  
edozei ikeratu.

Zure arima gaztea  
zabal-zabalik dozu;  
edozeineri zintzo-zintzo  
mosua zuk damotsezu.  
Izan be, ume maite hori,  
hain ederra zara zu!  
bai, gurasoen bitartez  
Jaungoikoak egin zaitu.

O zeru-lurren Egile,  
gure Jaungoiko ta Jauna!  
bebingoan ume laztanak  
garoaz, berez, Zugana.  
O zeru-lurren Egile,  
gure Jaun ta Jabea!  
arren, entzun egiguzu  
gure gaurko eskaria:  
Ez daigula inoz ikusi  
gure bizitzan, Jauna,  
udea loratxu gorritzka  
ta bedar guri baga,  
ez daigula, ez, ikusi  
txori "habia" hutsik,  
erletokia erle gabe  
ETXE BAT UME BARIK.





#### 4. ERRUSIA

**Alexandr Puxkin** (1799-1837) da garai guztietako poeta errusiar ospetsuena. 38 urte zituela, duelo batean zauritua izan ondoren hil zen.

Byron poeta ingelesaren eragina izan arren, beti izan zuen Puxkin-ek ahots propioa. *Eujenio Onegin* hitz neurtuzko nobela da, eta Puxkinen literaturaren gailurra; bertan erakutsi zuen izadiarekiko eta Errusiako herriekiko atxikimendua.

Hona bere bi poema:



#### 7. BOHEMIAR KANTA

Senar zaharra, senar beldurgarria,  
odolustu nazazu, erre nazazu,  
gertu nago. Ez diot beldurrik  
zure ukabilaren kolpeari, ez suari.  
Zenbat gorrotatzen zaitudan,  
zenbat mespretxatzen zaitudan!  
Beste gizon bat dut maite  
eta bera maitatzez nago agonian.  
Senar zaharra, senar beldurgarria,  
zuk ez duzu bera ezagutuko,  
kanta bat baino lirainagoa da,  
udako egun bat baino epelagoa.  
Zer gaztea den eta zer ausarta den,  
eta zenbat maite nauen!  
Zenbat laztandu dudan,  
gau luzeen isiltasunean  
zenbat trufatu garen zure adats zuriez!

#### 8. GOIZ ARGIAREKIN

Goiz, goiz argiarekin  
askatasuna ereitera irten nintzen,  
esku garbiz, inozentez  
bizitza-haziak jaurti nituen  
ildo esklabuetara.  
Denbora, ideia eta  
ahalegin alferrik galduak.  
Bazka zaitetze herri baketsuok!  
Ohorearen deiak ez zaituzte esnatzen.  
Zertarako behar dute  
abereek askatasuna?  
Abereak akabatzeke edo ilea triskilatzeke  
dira.  
Beren herentzia, belaunaldiz belaunaldi,  
uztarria da, ezkila, makila.





## 5. ESTATU BATUAK

Ipar Ameriketako literatura XIX. mendan loratu zen.

Poesian, **Edgar Allan Poe** (1809-1849), **Walt Whitman** (1819-1892) eta **Emily Dickinson** (1830-1886) dira izen aipagarrienak.

- **E.A. Poe**-k, poeta gisa, beste liburu batzuen artean *Belea eta beste poema batzuk* obra idatzi zuen. *Belea* da haren poemarik ospetsuena: itzal eta misterioz kargatutako giro fantastiko batean, edertasunaz eta heriotzaz mintzatzen dira zoritxarreko txoria eta poeta.
- **Walt Whitman** da Ipar Amerikako poetarik handiena, postromantikotzat jotzen bada ere. Gaztetan ofizio askotan ibili izanak (inprimatzaile, kazetari, zurgin...) jende xehearen beharrak eta kezkek ezagutzeko aukera bikaina eskaini zion. Horixe guztia bihurtu zen geroago Whitmanen poesiaren elikadura: *Leaves of grass (Belar hostoak)*, Whitmanen obra poetiko bakarra. Obra hau prosaren hurbileko bertso libreetan idatzia da. Demokrazian oinarritutako Estatu Batuetako kultura autonomoa kantatzen du; izadiaren indarra da gai garrantzitsuenetarikoa, giza bizitzako indarrekin batera (sexua, heriotza). Bizitzari esker onez gainezka idatzitako poema liburu ederra da *Belar hostoak*. Bere estilo liriko edo epikoak (poetiko-narratiboa), lerro luzekoak eta paralelismo ugarirekin, Bibliako salmoak ekartzen ditu gogora, baina gai originalagoekin. Whitmanek optimismoz abesten dio askatasunari, demokraziari, bizitza malkartsu eta lan gogorrari, garapenari eta bere aberriari, aipatutako guztia posible den lurraldeari.

## 9. Emily Dickinson

Berde hutseko arloa,  
belarrak hain du zeregin gutxi!  
Soilik tximeletak hazi  
eta erleak entretenitu.

Eta egun osoan kulunkatu  
brisak ekarritako doinu goxoekin,  
eta eguzkia magalean hartu  
eta erreberentzia egin guztiari;

eta gau osoan ihintza-tantak lerrokatu, perlak bailiran,  
eta hainbeste apaindu bere burua  
non Dukesa bat ere arruntzia litzatekeen  
holako begiramenduetarako.

Eta hiltzen denean ere,  
usain zerutiarretan joan,  
lotara jarritako espezia umilak,  
edo pinuzko amuletoak bezala.

Eta errege mandioetan bizi gero,  
eta ametsean igaro egunak...  
Belarrak hain du zeregin gutxi,  
oi, belar ondua banintz!





## 10. BELAR HOSTOAK Walt Whitman

### 6. atala

Haur batek galdegin zidan, Zer da belarra?, ahurka zekarkidala;  
Nola nik haurrari erantzun ahal? ... Nik ez baitakit  
hark baino hobeto zer den.

Susmoa dut izan behar duela ene jitearen ikurra,  
berdearen itxaropenez ehundutako oihala.  
Edo Jainkoaren zapia ote den susmoa dut,  
opari usaintsu bat, oroigarri nahita erortzen utzia,  
ertzetan jabearen izena daramana, guk ikus,  
antzeman eta geure buruari  
galdegin diezaiozun, Norena ote da?

Edo susmoa dut ez ote den belarra bera ume bat,  
landarediak ekoiztu haurtxoa.

Edo susmoa dut ez ote den hieroglifiko uniforme bat,  
adierazi nahi duena: berdin eremu zabaletan  
nola meharretan naiz garatzen,  
Gizaki beltz nola zurien artean naiz hazten,  
Kanadar, indiar, senatore, etorkin, guztiei diet ematen,  
halaber guztiak ditut onartzen.

Eta orain hilobien adats luze eta oparoaren antza diot hartzen.

Xamurkiro erabiliko haut belar kixkurra,  
agian mutilen bularrengandik haiz ematua,  
agian, ezagutu izan banitu, maite izango nituzkenan,  
agian jende zaharrengandik haiz ernea, eta emakumeengandik,  
eta euren amen altzotik goizegi erauzitako umeengandik  
haiz sortua,  
eta orain heu haiz amaren altzoa.

Belar hau ilunegia da ama zaharren buru urdinengandikoa izateko,  
ilunagoa gizon zaharren bizar kolorgea baino,  
iluna ahosabai gorri zurbilengandik etortzeko.

Oi! Hainbat mintzaira esanguratsu dut antzematen,  
eta jabetzen naiz ez direla ahosabaiengandik alferrik jalgi.

Neska eta mutil hildakoen gaineko iradokizunak itzuli gura nituzke  
Eta gizon zaharren eta amen gaineko iradokizunak,  
eta beren haurrenak, altzotik goizegi erauziak.

Non ote dira gizon zahar eta gazteak?  
Eta non ote dira andre eta haurrak?

Nonbait badaude, bizirik eta ongi;  
muskilik mendreenak ere heriorik ez dela digu erakusten,  
eta inoiz izan bazen bizia aitzina eramatearren izan zen,  
eta ez dago honen amaieraren zain geldiarazteko.  
Eta bizitza sortu zen unean desagertu egin zen.

Oro doa aitzina, hedatuz, deus ez da suntsitzen.



Eta herioa denek uste zutena ez bezalakoa da, eta dohatsuagoa.

### 11. Belar ostoa, Walt Whitman 7. atala


Otu al zaio inori zorioneko dela jaio izatea?  
Zinez diotsat horri herioa hura bezain zorioneko dela,  
eta badakit zer diodan.

Hiltzen daudenekin hiltzen naiz eta ume jaioberri garbitu berriarekin  
jaiotzen naiz... eta ene sonbreiru eta oinetakoen mugak gainditzen ditut,  
anitz objektu dut aztertzen, ez dago bi berdinek eta guztiak dira onak,  
ona lurra eta onak izarrak, eta ona dagokien oro.

Ez naiz lur, ezta lurrari dagokion ezer,  
jendearen lagun eta adiskide naiz; guztiak ni bezain hilezko eta ulergaitz;  
ez dakite zenbateraino diren hilezko, neuk bai ordea.

Mota bakoitzak norbera, eta norberarenak, niretzat neurea ar eta emea.  
Niretzat mutilak izanik emakumeak maite izan dituztenak.  
Niretzat gizon fierra eta mespretxua zein mingarria den dakiena.  
Niretzat andregaia eta neskazaharra, niretzat amak eta amen amak.  
Niretzat irribarre egin duten ezpainak, malkoak isuri dituzten begiak.

Niretzat haurrak eta haurrak sortu dituztenak.  
Biluz zaitez! Enetzat ez zara ez errudun, ez arbuigarri ez gaitzesgarri.  
Oihal beltz nahiz perkalean zehar dakust, nahi ez duzula ere,  
ez naiz aldenduko, temati, eskurakoi eta nekagaitz nauzu...  
eta ez dut sekula amore emango.







**12. Belar ostoak, Walt Whitman 32. atala**  
(zatia)

Abereen artean biziko nintzateke...  
hain dira eztiak hain dira isilak,  
luzaz egoten natzaie begira.  
Ez dira lanean lehertzen, ez halabeharraz  
kexatzen,  
ez dira gauaz esna egoten,  
ez dute bekatuengatik malkorik isurtzen,  
ez naute Jainkoarekiko  
betebeharraz eztabaidetan nazkatzen,  
asegaberik edo ezertaz  
jabetu nahirik grinaz  
erotzen denik ez dago bat ere,  
Ez da beste baten aurrean belaunikatzen  
denik,  
ezta duela milaka urte bizi ziren  
bere kidekoen aurrean ere,  
bat ere ez dago lurbira osoan ohoragarri ez  
errukarri denik.



Walt Whitman

## POESIA ERROMANTIKOA

1. Bildu eta zerrenda itzazu poesia erromantikoaren ezaugarriak

2. Lotu itzazu zerrendako poeta erromantikoak nazio-hizkuntza batekin, poema edo poema-libururen batekin eta estiloaren ezaugarri batekin

	Nazio-hizkuntza	Poema edo poema-liburua	Ezaugarriak
HEINRICH HEINE			
WILLIAM WORDSWORTH			
JOHN KEATS			
EDGAR ALLAN POE			
EMILY DICKINSON			
J.W. GOETHE			
WALT WHITMAN			
ALEXANDER PUXKIN			
ALPHONSE LAMARTINE			
VICTOR HUGO			

3. Zuk aurkezpenean landu EZ DUZUN poema erromantiko bat aukeratu, eta egizu haren iruzkina, gidoi honi jarraituz:

- Berridatz ezazu poema osorik
- Poemaren gaia eta argumentua edo mezua
- Interpretazioa eta iruzkin kritikoa; ba al du erromantizismoko ezaugarriak formaren, tonuaren edo gaiaren aldetik?
- Iritzi pertsonala

## 7. GAIA : POESIA ERROMANTIKOA Poemak lantzeko galderak

### 1. PROMETHEUS (J.W. Goethe)

1. Nor zen Prometheus? Zer egin zuen, greziar mitologiaren arabera?
2. Zer jarrera azaltzen du poemako hiztunak (Prometeok) jainkoekiko? Jaso itzazu poeman jarrera horiek erakusten dituzten esaldiak.





3. Ba al da poeman askatasuna goersten edo aldarrikatzen duen pasarterik? Zeintzuk?

## 2. FILOSOFIA (Heinrich Heine)

1. Poema honetan galdera bat eta erantzun bat aipatzen dira. Zentzuk dira galdera-erantzunok? Nola interpretatzen dituzu azken lerro biak?

## 3. GERNIKAKO HARITZA (William Wordsworth)

1. Zein balio atxikitzen dio poetak Gernikako haritzari? Non islatzen da hori poeman?  
2. Zein da zuhaitzaren balio sinbolikoa? Ba al du zerikusirik jarrera erromantikoekin?

## 4. ODA GREZIAR ANFORA BATI (John Keats)

1. Zergatik kantatzen dio Keats-ek anfora bati? Aipa itzazu objektu horretan poetak ikusten eta miresten dituen irudi batzuk; zergatik goersten ditu?  
2. Komenta itzazu poemako hiru azken lerroak: badago eurotan erromantizismoaren zantzurik? Gainerako aipamenetan edo gaian bertan ere jarrera edo balio erromantikorik sumatzen duzu?

## 5. GURASOEN ETXEKO LEIHOA (Alphonse de Lamartine)

1. Errepara iezaiozu lehen lerroari: zein figura literario ageri da bertan? Poemako beste lekuren batean egiten da horren jarraipena?  
2. Zein sentimentu eta zein tonu nagusitzen dira poeman?

## 6. UMEA (Victor Hugo)

1. Poemako gaia definitu ondoren, ikertu bertso edo apal bakoitzean poeta (narratzailea) nori zuzentzen zaion.  
2. Victor Hugoren frantsesezko poema honen itzulpena Mikel Zaratek egin zuen, bizkaieraz egin ere. Neurriari eta errimari ere eutsi zien, zailtasunak zailtasun. Zein da eskema metrikoa?

## 7. BOHEMIAR KANTA (Alexandr Puxkin)

1. Zein eratako indarkeria azaltzen da *Bohemiar kanta* honetan? Gaitzetsi egiten da? Zelan?  
2. Gaur egun badago halakorik gure gizartean? Azaldu zure esperientzia.

## 8. GOIZ ARGIAREKIN (Alexandr Puxkin)

1. *Goiz argiarekin* poeman askatasunaz hitz egiten da.  
2. Ze ikuspegi ematen du poetak balio horretaz? Ze arazo planteatzen du?

## 9. BELARRA (Emily Dickinson)

1. Poema honetan nolabaiteko pertsonifikazioa azaltzen da: zerena? Zein lerrotan agertzen da?  
2. Zelan interpretatzen duzu azken lerro bietan esaten dena?

## 10. BELAR HOSTOAK, 6. ATALA (Walt Whitman)

1. Belarraren aitzakian hainbat kontzeptu eta balio aurkezten digu poetak; zeintzuk dira?  
2. Zer dio biziaren eta herioaren? Badute belarrarekin zerikusirik? Bila itzazu lerro artean.

## 11. BELAR HOSTOAK, 7. ATALA (Walt Whitman)

1. Hemen, Whitman-en poema guztietan bezalaxe, behin eta berriz lehen pertsonan mintzatzen da poeta (ni, niretzat...). Zelako tonua ematen dio horrek testuari?  
2. Zein jarrera antzematen da gizakiekiko, biziarekiko, herioarekiko...?

## 12. BELAR HOSTOAK, 32. ATALA (Walt Whitman)

1. Poetak zerekin edo norekin konparatzen ditu abereak? Zergatik ditu hain gustuko?  
2. Ba al da kritikarik poemaren baitan? Nori egiten dio kritika.

## 13. F. HOLDERLING, 1.a Poemak



1. Zeren salaketa egiten du poetak? Zer ari da aldarrikatzen?
2. Ba ote du poema honek erromantizismoaren ezaugarririk? Zeintzuk dira? Azaldu luze/sakon arrazoituz.

#### **14. F. HOLDERLING, 2.a Zoriaren Kantua.**

1. Nortzuk dira poema honetan "zuek"? Eta nortzuk dira "gu"? Norekin identifikatzen da bai bata eta bai bestea?
2. Norentzat ez dago atsedunik? Zergatik deitzen da Zoriaren Kantua?

#### **15. W. WORDSWORTH, Bihotza jauzten zait.**

1. Zer esan nahi du poetak "Bihotza jauzten zait esatean"?
2. Zergatik da umea gizonaren aita? Zer esan nahi du horrek?

#### **16. W. WHITMAN, Onezkoak egin.**

1. Zertaz ari da poeta? Zer da gertatzen ari dena? Zer da horren ederra? Eta zer da guztiei esan behar zaiena?
2. Zer esan nahi du "onezkoak egin" esamoldeak?

#### **17. W. WHITMAN, Ontziburu! Nire Ontziburu!**

1. Zer gertatu zitzaion Abraham Lincoln-i? Zelan hil zen? Zein garaitan izan zen?
2. Zein da itsasontzia? Eta zer da itsasaldi ikaragarria?
3. Zer esan nahi du ontzia portura iritsi dela esatean? Poema metaforikoa omen da, azaldu zertan datzan metafora hori.

#### **18. V.HUGO, (Alabari)**

1. Zeintzuk dira bertan ageri diren sentimenduak? Nor izan liteke zu hori? Zergatik bakarrik eta goibel?
2. Egunez abiatiko da eta arrastian iritsiko, zeren sinbologia da hori? Zergatik egiten du horrela?

#### **19. P.B. SHELLEY, Zure Muxuen Beldur**

1. Zein da gaia poema honetan? Zehaztu gaia adjektibo bat edo birekin.
2. Non kokatzen da poeta poema idaztean? Eta berak maite duen andere goxoa? Plano berean ote daude? Zergatik? Lotu erromantizismoaren ezaugarriekin.

#### **20. P.B. SHELLEY, Bere Ahotsa**

1. Zergatik da mundua zabalegia sufrimenduarentzat? Zer esan nahi du? Zelan sentitzen da poeta?
2. Zer daki bestearen minaz? Zer dakizu zuk besteen minaz? Azaldu noiz egin duzun negar azken aldiz. Edo zergatik egingo zenukeen negar.

#### **21. J. KEATS, Bitxilorearen kantua.**

1. Zeren sinbologia izan ohi da bitxilorea? Kontatu zer istorio dagoen bitxiloreen inguruan poema honekin lotu daitekeena.
2. Zer da udaberria poema honetan? Lotu bitxilorearen istorioarekin.

#### **22. VLADIMIR HOLAN, Baina.**

1. Poeta hau ez da erromantizismo garaikoa, hala ere, baditu ezaugarri erromantikoak. Esan noizkoa den, zein sasotakoa, azaldu bere biografia.
2. Aurkitu poema honetan ezaugarri erromantikoak eta lotu itzau erromantizismoarekin.

#### **23. B. LEOPARDI, Bere buruari.**

1. Zer da dioena, zein da mezua? Interpretatu poema osoa zeure hitzetan mezua azalduz, hitzez hitz ulertzeko moduan, hau da, berridatzi poema osoa zeure hitzetan. Gero azaldu Poetaren egoera.

#### **24. V. HUGO, Kristo Gurutzatua.**





1. Zein da gaia? Zein da mezua? Ze ezaugarri erromantiko ditu?
2. Formaren aldetik ze figuratan oinarrituta dago poema? Zein da ahapaldien egitura? Lehenengo ahapaldian badago zerbait berezia besteetatik aldentzen duena, zer da?

### 25. V. HUGO, Andere bati.

1. Ze motatako poema da? Zertaz ari da? Zer eskaintzen dio neskatoari? Zeren truke?
2. Zeren irudiak dira begirada eta musua? Eta erregea eta jainkoa? Badago mailakatzerik poeman)

### 26. S. T. Coleridge, Apologia Pro Vita Sua

1. Zer egiten du poetak? Zein da bere zeregina? Non kokatzen du egileak Poetaren lana? Zergatik?
2. Azaldu poetaren zeregina erromantizismoan.

### 27. J. Keats, Herioari buruz

1. Poetak galdera bat planteatzen du, zein da? Zerekin konparatzen du bizitza? Zelakoa da bizitzaeta zergatik dio arraroa dela?
2. Zein da galderaren erantzuna? Zergatik konparatzen ditu bizitza eta loa? Horrelako beste konparaziorik noiz ikusi izan dugu Literaturan?

### 28. J. Sarrionandia, Amodio Protopoema

1. Azaldu izenburuaren esanahia. Zergatik jarri dio izen hori? Non dago idazlea? Zergatik ari da hipotesi bat planteatzen? Zer esan nahi du "hizak haragi bihurtu" esaldiak.
2. Zelako konparazioak darabiltza autoreak? Azaldu konparazio bakoitzaren esanahi azalekoa eta ezkutua.

### Poema bilduma:

#### 13.- F. Holderling, 1.a Poemak

Alferrik! Aroidor honek ez nau gelditzen,  
nire mendea zama egiten zait,  
biziaren landa berdeetara nahi dut iritsi  
eta entusiamoaren zerura.  
Ehortzi, hildako zaretanok,  
bakarrik zeuen hildakoak!  
Baloratu giza ekintza eta irain nazazue,  
hala ere nigan, neure bihotzak desiratu bezala,  
ontzen da natura ederra eta bizia.

#### 14.- F. Holderling (Zoriaren kantua)

Argitan zabiltzate  
Hor garaietan  
Lur samurretan,  
Zorioneko Geniook!  
Jainkoen haize dizdiratsuek  
Ikutzen zaituzte emeki,  
Artistaren hatzek  
Korda sainduak bezala.

Zoririk gabe  
Lotan umeak bezalaxe  
Arnas egiten dute Zerutarrek.  
Arazki gorderik

Korola apalean legez  
Arima  
Beti loratzen zaie.  
Eta zorioneko begiek  
Behatzen diote  
Betikoako argitasun geldiari.

#### Shicksalslied

Baina, guk atsedunik  
Edukiko ez dugu.  
Haitzik haitz  
Ura jaurtiki den bezala  
Itsuki  
Ordurik ordu  
Aihenatzen  
Erortzen dira  
Gizon jasankorrek  
Urte oro ezezagunera.



#### 14.- W. Wordsworth, Bihotza jauzten zait

Zeruan ostadarra begizatzen dudanean,  
bihotza jauzten zait;  
Horrela izaten zen txikia nintzela,  
horrela orain, eta banaiz gizona.  
Horrela izan bedi zahartzean ala hil nadila!  
Umea gizonaren aita da;  
nahi nuke ene egunak, berezko errukiz,  
elkarrekin lotuta izatea.

#### 15.- W. Whitman, Onezkoak egin

Esan guztiei: Ederra da, zerua bezain ederra,  
Ederra, azkenik, gudu eta haren egite gordinak  
birrintzea.  
Herio eta Gau ahizpek, eten barik, xahutu  
dezatela bigun ludi lohitua.  
Hila baita nire etsaia; gizon bat, neu bezain  
jainkozkoa, hila da:  
Behean datza, musu-zuri eta geldirik, hilkutxan;  
urreratzen natzaio,  
Eta makurturik, musu zuria diot ikutzen,  
hilkutxabarruan, neure ezpainez.



neu bezain jainkozkoa, hila da:  
Behean datza, musu-zuri eta geldirik, hilkutxan;  
urrerutzen natzaio,  
Eta makurturik, musu zuria diot ikutzen,  
hilkutxabarruan, neure ezpainez.

**16.- W.Whitman, Ontziburu! Nire Ontziburu**  
Abraham Lincoln-en heriotzean

Ontziburu!, nire ontziburu!, amaitu da  
gure itsasaldi ikaragarria.  
Ontziak aldera egin ditu uharrri guztiak,  
begiratzeko genuen saria irabazi dugu.  
hurbil da portua, aditzen ditut joaleak eta  
herri osoak zuri goraka,  
begiak ontzi sendoari, ontzi ausart eta harroari  
jarraitzen zaizkiola.  
Baina, ai ene! ene bihotz! ene bihotz!,  
odol tanta gorriak erortzen dira geldiro,  
nire ontziburua  
zerraldo eta hilotzik datzan zubian.

Ontziburu!, nire ontziburu!, jaiki zaitetz joaleak  
aditzeko.  
Jaiki zaitetz. Zuregatik goratu dute bandera.  
Zuregatik hots egiten du turutak. Zuretzat dira  
lore sorta eta bureztun horiek.  
Zuregatik betetzen dute itsasertza gizaldeek.  
Zureganantz zuzentzen dituzte beren deiak,  
beren gogoak eta aurpegi zaletsuak.  
Zatoz ontziburu! Aita maitea! Beso hau zure  
burupean.  
Ametsa-edo da zubiaren gainean zerraldo eta  
hilotzik etzaten zarela.

Nire ontziburua ez du erantzuten, bere  
ezpainak zurbil eta isil.  
Nire aitak ez du nire besoa ohartzen, ez du  
intziririk ez nahimenik.  
Ontziak, oso eta gaizka, bota du aingura;  
bere bidaldia bukatu da.  
Bere joan-etorri ikaragarria eginda, ontzi  
garailea sartu da portuan.  
Alai zaitetzte, izpazter horiek, soinu egin joaleak!  
Baina ni urrats neketsuokin ibiltzen naiz, nire  
ontziburua zerraldo eta hilotzik datzan zubian.

**18.- Victor Hugo, Alabari**

Bihar, egunsentiarekin,  
landak egunezko egiten diren orduan  
Ni joan egingo naiz. Eta zu,  
badakit entzuten nauzula.  
Basoan zehar joango naiz, mendian zehar. Ezin  
egon ninteke zugandik aparte luzaro. Abiatu  
egingo naiz begiak nire pentsamenduetan tinko,  
kanpoko ezer ikusi gabe, hotsik aditu gabe.  
Bakarrik, ezezagun, bizkarra konkorturik,  
eskuak gurutzaturik.  
Goibel, eta eguna niretzat gaua bezalakoa  
izango da.  
Erortzen den arrastiaren urreari ere ez diot  
begiratuko,

Ez eta Harfleuren gainera, han urruti, jausten  
diren oihalei ere.  
Eta, ailegatutakoan, zure hilobiaren gainera  
Gorosti berde eta iraloredun xorta bat pausatuko  
dut.

**19.- P.B.Shelley, Zure Muxuen Beldur**

Zure muxuen beldur naiz, andere goxoa.  
Zuk ez duzu nire muxurik behar;  
Nire espiritua hain sakon sorgorturik doa,  
ezin du zurea ikaratu.  
Zure ibileraren, taxuaren, mugimenduen beldur  
naiz  
Zuk ez duzu nireen beldur zertan izan;  
Inuzentea da nire bihotzak zu maitatzeko  
duen debozioa.

**20.- P.B.Shelley, Bere Ahotsa**

Bere ahotsak dardar egin zuen aldendu  
ginenean,  
eta here bihotza, oso berandura arte,  
hautsita zegoela jakin ez nuen arren,  
orduan elkarri esandako hitzei erreparatu  
gabe urrundu nintzen.  
Sufrimendua, oh sufrimendua zabalegia da  
zuretzat mundu hau!

**21.-John Keats, Bitxilorearen kantua**

Bere begi handiaz, eguzkiak ez dakus nik  
dakusdana.  
Ilargia, oro zilar, harro, berdin ezkuta liteke  
hodei baten atzean.

Eta Udaberria iristean --Oh udaberri!--  
errege batena da nire bizitza.  
Belar berritan etzanda,  
nestatila ederrei atezuan egoten natzaie.  
Inor ausartuko ez litzatekeen tokietan  
aditzen dut eta  
inork tinkatzen ez dituen lekuetan  
tinkatzen ditut begiak,  
eta gaua badator,  
ardiek seaska kanta bat abesten didate.

**22.- Vladimir Holan, Baina**

Barrearen eta abestien jainkoak aspaldi itxi  
zuen bere atzean betiereko atea.  
Ordurik hona lantzean behin baino ez du  
durundirik ateratzen gudan  
bere hilaginezko gomutak.

Baina ordurik aurrera mina da  
gizakiaren neurria eskuratzen duen bakarra eta,  
hala ere, bihotz barruan kabitu behar zaio.

**23.- Leopardi Bere buruari**

Betiko atsedengo zara,  
bihotz nekatua! Hil da engainua betierekoa  
imajinatu nuena. Hil egin da.  
Eta ohartzen naiz





nigan, ilusio lausenkarizko esperantzarekin,  
 enbeia ere hil dela. Betiko atsedenean datza.  
 Akabo taupadaka egitea. Ez dago ezer zure  
 taupaden duin;  
 lurak ere  
 ez du hasperenik merezi: grina eta asperrezia  
 da bizitza, besterik ezer ez,  
 eta lokatza mundua.  
 Baretu zaitez, eta etsi  
 azken aldiz: gure arrazari Patuak  
 hiltzea besterik ez zion onartu. Beraz,  
 burgoi, bazterretsi zure izatea eta Natura  
 eta ahalmen gogorra era ezkutuan  
 hondakin unibertselean gailentzen dena eta  
 denaren harrokeria.

#### 24.- V. Hugo Kristo Gurutzatua

Negar dagizuenok,  
 zatozte Jaunarengana,  
 negarrez dago eta.

Neketan  
 zabiltzatenok,  
 zatozte Berarengana,  
 osasuna baita.

Beldur zaretenok,  
 zatozte Berarengana,  
 irribarre dagi eta.

Igaroz zoaztenok,  
 zatozte Berarengana,  
 iraunkorra da eta.



#### 25.- V. Hugo Andere bati

Neskatila! Errege banintz nire erresuma,  
 nire tronua, nire agintemakila eta nire herri

belaunikatua emanen nituzke,  
 nire urrezko bureztuna,  
 nire harnabarrezko igerilekuak,  
 nire untxiak, itsasoa aski ez luketenak,  
 zure begirada baten truke.

Jainkoa banintz, lurra eta olatuak,  
 aingeruak eta nire agintepeko deabruak.  
 Eta errai barrenetako kaos sakonena,  
 eta denbora eternala, espazioa, zeruak,  
 munduak emanen nituzke  
 zure musu baten truke

#### 26.- S. T. Coleridge Apologia Pro Vita Sua

Poetak bere ordu bakartian  
 indar itzela ematen die begiei.  
 Edo areago, jaregin egiten ditu,

itxura eta tankera beltz ororen neurritik,  
 Ikatz ilenti onberen artean  
 Edo piparen ke kiribilatuaeren erdian  
 bere dohaiak gailentasunezko mamuak  
 irudika ditzake.

#### 27.- John Keats Herioari buruz

Egon daiteke herioa lo,  
 bizitza ametsa baizik ez denean,  
 eta zorion aldiak mamuak bailiran igaro?  
 Atsegin hutsalek begitanzioak dirudite  
 Eta minik handiena hiltzea dela uste dugu.

II.  
 Zein arraroa den gizakiaren munduan zehar  
 ibili beharra,  
 Eta suminezko bizitza izan, baina  
 ez dezala etsi bere bide latz horretan,  
 ez bedi ausartu  
 bere patua bakarrik ikustera, berau  
 esnatzea besterik ez baita.

#### 28.- J. Sarrionandia Amodio Protopoema

Amodio poemarik xamurrena izkiriatu  
 nahi nizuke  
 poeta erromantikoen xalotasun eta  
 erru gabeziarekin.

Zure zangoak luze-luzeak balira  
 eta ene zangoak zureak lain luzeak  
 mahaipen luzatuko genituzke zangoak  
 zangalatrabatzeraz jolasteko.

Ene hatzamarrek zure larrua ukituez gero  
 pospolu antzera izekiko liriateke.

Mundua arrisku larrian jarriko genuke  
 gure besarkadagatik ikaratzen ez dakit  
 zenbat  
 Richter eskalan.

Erdu harresia aihenbelarrak lez eskalatuz,  
 erdu  
 untxiaren kubertara jauzten den  
 olatuaren gisan,  
 erdu eremu lehorra hondatzera datorren  
 ekaitza bezala.  
 Erdu eta bihur ditzagun hitzak haragia.

Solda gaitzabela bata bestearen kontra.

Horrelako poema gogotsu bat eginen nizuke,  
 baina zer laburra den lirikarena.  
 Leioa zabaltzean, zeldara zure orde,  
 Errealitatea sartzen zait, bere altzairuzko  
 hatzaparrekin,orroaka.